

tutegitara edo *ermitatara egiten dena da; pelegrinazioko *elizkizunekin batera sarritan egun osoko jaialdia ospatzen zuten ermitaren inguruan. Horregatik, erromeria hitzak, gaur egun, landan, mendian edo ermitaren baten inguruan ospatzen den jaialdi herriarra esan nahi du, inolako kutsu erlijiozko ez badu ere.

Ik. Jaia.

Erromes-bidea

Ik. Erromesaldia, 2.

Erromesaldia

1. Sin.: Beila; Pelegrinazioa. *Santutegi edo leku santuren batera fededunak edo fededun-elkarteak egiten duten bidaiak, normalean luze xamarra.

2. Sin.: Erromes-bidea; Pelegrinazioa. Lehen adieraren ondorioz Kristau-hizkeran norberaren edo Eliz elkartearen mundu honetako bizialdiari esaten zaio horrela.

* * * * *

Erlijiozko *errito berezia da, funtsean halako *leku sakratu jakin batera bidea eta bisita eginez betetzen dena, leku horretan jainkozko bertakotasuna eta presentzia trinakoagoa eta jainkozko laguntza seguruko delako uste izanez.

Lau elementu funtsezko hauek mugatzen dute erromesaldia edo beila: *Leku sakratuak, haratzen diren lagunak (sarritan taldeak edo jendoldeak), bidea egitea edo ibilaldia leku hartara iristeko, erlijiozko asmo bereziren bat erromesaldiaren bidez lortu nahi dena.

Abiapuntuan hasten da, beraz, erromesaldia edo pelegrinazioa, leku sakratuko helmugara begira. Bide egitea berez dago adiera erlijiozkoz bete (ik. Bidea); ez da, ordea, *labirintoko ibilibehar galdua ezta *prozesio batzutako itzulinguru inolako helmuga jakinik gabea; pelegrinazioan abiapuntutik bertatik dago argi helmuga jakina: *santutegia edo leku sakratua. Santutegirako ibilaldia bera erriroaren partetzat hartzen da eta ez prestaera soiltzat; bertako nekea eta *hildurak, taldean bide egitean lantzen den *elkartasuna, *otoitzak, kantak: guzti horiek osotzen dute erromesaren bide egitearen erritua. Agian erromesaldiak bide egitearekin duen loturagatik, ohitura da kotxeak bedeinkatzea santutegietan egitea. Era berezian pelegrinazioa edo erromes-bidea da gizakiaren lurreko bizialdiko bide egitearen *sinboloa, lehen adierazi denez.

Erromesaldiaren asmoak ezberdinak izan ohi dira: egindako bekaturen baten ordain-

-penitentzia, Jainkoarengandik edo santuren batengandik lorturiko mesederen batengatik eskerrak ematea, eskabideren bat (gaitzen bat sendatzea, eginkizunen batean ongi iriteztea, etab.) aurkeztea. Sarritan pelegrinazioaren ziotzat aurretik emandako *zinitzen bat egon ohi da. Baina gehienetan erlijiozko betebeharrak edo *jaiera orokortzat hartzen da erromesaldia edo beila.

Santutegian betetzen diren erritoez ere ezberdinak zian ohi dira: otoitzaldiak, opariak eskaintzea, bertako gauza sakraturen batekin ukituan egotea, indar berezia omen duten gauza bedeinkatuak eskuratzea edota gauzak nahiz lagunak bedeinkatzea. Horietan nabarmena izan ohi zen gau-beila egitea, otoitzean eta penitentzian. Hortik dator agian erromesaldia beronen osoan beila ditzea.

Pelegrinazio-lekua santutegia izan ohi da, hori adiera oso zabalez ulerturik. Bertan gurtu ohi da jainkozkoaren lekuko eta ordezkari bereziren bat: horren irudi mirarigilea, horren *erlikia, etab.; edo Jainkoaren bertakotasuna agertzen duen gauza sinbolikoren bat (kaaba Mekka-n, itun-kutxa Jerusalemgo jauretzean) edota haren eragin mirarizkoa erakusten eta zabaltzen duen gauzaren bat (Epidauro-ko edo Lourdes-eko ura).

Erlijio nagusi denetan da ezaguna eta zabaldua erromesaldiaren erritua. Antzinako Egipton Osiris-en hilobira joaten ziren erromes; daismoak, budismoak eta hinduismoak pelegrinazio-leku handiak eta ugariak dituzte *tenpluen eta *monastegien inguruan. Txinako bost *mendi sakratuak ezagunak dira antzina-antzinatik; Indian Benares hiria da seguruenik pelegrinazio-lekurik nagusia hinduentzat nahiz budistentzat, besteren artean Ganges *ibai sakratuaren ertzean dagoelako kokaturik.

Beste santutegi eta beila-leku historiko batzuek mundu osoan entzutetsuak izan dira edota oraindik dira: Jerusalemgo tenplua juduentzat eta hilobi santua kristautentzat; Mekka, bizitzan behin bederen musulmanek bisitatu behar dutena; Erroma kristautentzat; Santiago Erdi Aroan. Santutegi eta beila-leku modernoan artean katolikoentzat Lourdes da agian munduan ezagunena. Euskal Herrian ere beila-leku asko dago: Lezoko Santokristoa, Arantzazu, Urkiola, etab.

Herri-erlijiokeraren adierazpen nagusietako da pelegrinazioa, erromesaldia edo beila: herriaren erlijiozko sormenak emankortasun handienetakoa pelegrinazioaren giroan agertu du, hain zuzen ere. Hainbat literatura, kanta, ohitura eta tradizio herriar sortu eta mamitu da beila-lekuen inguruan. Asmo erlijiozkoarekin batera, jaigiroa eduki

Errubrika

izan du erromesaldiak, eta santutegiaren inguruak festa-leku bihurtu dira askotan: horregatik "erromeria" hitza, peleginazioa --batez ere Erromarakoa-- edo beila adierazi izatetik, landan eta zerupean egiten den jaialdi herritarra adieraztera igaro da, "erromes" hitzak bere esanahi erlijiozkoa hobeto gorde duen bitartean.

Bestalde, jendoldeen mugimendu turistikoko handiko fenomeno sozial garrantzizkoak gertatu dira sarritan erromesaldiak; ondorioz, arte eta kultur mugimendu berezien eragile ere izan dira maiz beila-lekuak. Merkataldegi garrantzizko ere bihurtu izan dira horietako leku edo herri batzuk.

Ik. Erromeria; Jaierak.

Paulo Agirrebaltzategi

Errubrika

Latinezko ruber (gorri) hitzetik dator. Liturgian erabiltzen da, eta zera esan nahi du: Errito- nahiz zeremoni liburuetan emandako oharra, liturgikizuna egoki eta zuzen betetzeko. Horrela deitzen dira oharrok, garai batean gorritz idazten zituztelako; gaur ere sarritan halaxe idatzita daude.

Ik. Errittoa; Zeremonia.

Errudun-sentimendua

Nork bere oker moralengatik nabari duen barne-zimikoa, bere burua horien jabe eta erantzule egiten duelarik. Sentimendu horrek edukin erlijiozkoa du, oker morala Jainkoak edo legegile transzendentek ezarritako legearen urratze edo bekatutzat hartzen deanean.

Ik. Erritozko garbitasuna; Bekatua.

Errugabeak, haurtxo

Ebanjelioak (Mt 2,16-18) kontatzen duenez, Herode Handiak hilerazi zituen Belen-go bi urtetik beherako haurrak, Jesus haurra ere horien artean hil nahian.

Horien *oroitzapena abenduaren 28an egiten du errito erromatarrek.

Ik. Haurra.

Errukia

Ik. Urriki(mendua).

Esanekotasuna

Ik. Menekotasuna.

Esanezintasuna

Jainkoaren jainkotasunezko dohaina da, Haren izana gizakiaren mintzamenaren eta

adierazteko ahalmenen gainetik dagoela esan nahi duena. Teologiaren oinarri-oinarriko arazoa da hori, erlijiozko eta teologiazko hizkeraren beraren ahalbidea eztabaidatzen duena. *Agnostizismoaren aurka dagoenez, hizkera sinbolikoz eta ukapenaren eta bikainespeneren bidez baliatzen da *teologia.

Ik. Sinboloa.

Eseniarrek

Judu-sekta aszetikoa, Kristoren garaian nahiko indartsua, nahiz eta ebanjelioetan beraiei buruzko aipamenik ez agertu: Kristo aurretiko II. mendean sortua eta Kristo ondoko II. mendean desagertua.

Bizi-elkartetan biltzen ziren eseniarrek. Elkartera sartu aurretik, hiru urtetako *nobizetza egin behar zuten. Beraien erlijiozko *farisearrek predikatzen zutenarekin nahiko hurbilekoa zen.

S. Joan Bataiatzaileak eta Jesusek berak *sekta horrekin eduki zuten harremana ez dago oraindik ongi argiturik. Baina badirudi S. Joan Bataiatzaileak ematen zuen *bataioa eseniarren *sarbidadapen-erritokoa zela.

Esfera

Sinboloa denez, *zirkuluak bezala osotasuna eta batasuna adierazten ditu. Norbaiten ezaugarria denez, berriz, lurbira irudikatzen du; kristautasuneko irudigintzan hainbat aldiz agertzen da, Jesukristoren eta Ama Birjinaren ezaugarritzat batez ere.

Esfingea

Greziako mitologia klasikoan munstroa zen, emakumearen aurpegia, lehoiaren gorputza eta hegazti arrapakariaren hegoak zituen. Harkaitzaren gainean exerita, Teba-tik hurbil, bidez zijoazen guztiei asmakizun bana jartzen omen zien, eta ez asmatzera, hil egiten omen zituen eta irentsi.

Ik. Aztiapena.



Esfingea Edipo erregeari asmakizuna ipintzen. Vatikanoko museoen dagoen ontzi gotikoan irudikatua.